Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala
Boletín Oficial de Gipuzkoa

2024ko maiatzaren 3a, ostirala — 85 — Viernes, a 3 de mayo de 2024

TOKI ADMINISTRAZIOA — 3 — ADMINISTRACIÓN LOCAL

## AZPEITIKO UDALA

*«4.1 Santutxo» eta «1.2. Done Jakue» azpieremuek osatutako jarduketa integratuaren Birpartzelazio Proiektuaren hasierako onespena.*

Tokiko Gobernu Batzarrak, 2024ko apirilaren 16an hartutako erabakiaren bidez, hasiera batean onartu du «4.1 Santutxo» eta «1.2. Done Jakue» azpieremuek osatutako jarduketa integratuaren Birpartzelazio Proiektua, Azpeitiko Udalak formulatua eta Jon Orue-Etxebarria Iturri abokatuak idatzia.

Euskal Autonomia Erkidegoko Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legearen 43.2 artikuluarekin bat etorriz, jendaurrean jartzen da iragarki hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egun baliodunetik hogei egun balioduneko epean. Denbora horretan proiektua aztertu eta egoki iritzitako alegazioak jarri ahal izango dira, udal honetako Herritarren Arreta Zerbitzuan (Plaza Nagusia, 5), udaleko alkate-udalburuari zuzenduta. Era berean, elektronikoki aurkeztu ahal izango dira, udalaren egoitza elektronikoaren bidez edo Administrazio Prozedura Erkidearen Legeak ezarritako beste moduren batean.

Jendaurrean jartzeko, iragarkiak jarriko dira Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta Gipuzkoako Lurralde Historikoan hedadura handiena duen egunkarian edo egunkarietan.

Halaber, proiektua jakinaraziko zaie erregistroko titularrei eta birpartzelazioak eragiten dien guztiei.

Birpartzelazio Proiektua Udalaren webgunean egongo da ikusgai, Hirigintza Sailaren barruan.

Ebazpen honen aurka ezin da errekurtsorik jarri, izapide-egintza bat delako.

Azpeitia, 2024ko apirilaren 23a.—Nagore Alkorta Elorza, alkatea. (2986)

## AYUNTAMIENTO DE AZPEITIA

*Aprobación inicial del proyecto de reparcelación de la actuación integrada de los subámbitos «4.1 Santutxo» y «1.2. Done Jakue» de Azpeitia.*

Por Acuerdo de la Junta de Gobierno Local de fecha 16 de abril de 2024 se ha aprobado con carácter inicial el Proyecto de Reparcelación de la actuación integrada de los subámbitos «4.1 Santutxo» y «1.2. Done Jakue» de Azpeitia, formulado por el Ayuntamiento de Azpeitia, y redactado por el abogado Jon Orue-Etxebarria Iturri.

De conformidad con el artículo 43.2 de Ley 2/2006, de 30 de junio, de Suelo y Urbanismo del País Vasco, se somete a información pública durante el plazo de veinte días hábiles a contar desde el siguiente hábil al de la publicación del presente anuncio en el Boletín Oficial de Gipuzkoa, a fin de que pueda ser examinado y presentarse durante este periodo de información pública, las alegaciones que se estimen procedentes, que deberán ser presentadas en la Oficina de Atención Ciudadana de este Ayuntamiento (Plaza Nagusia, 5), dirigidas a la Alcaldesa-Presidenta del Ayuntamiento. De igual forma, podrán presentarse electrónicamente a través de la sede electrónica del Ayuntamiento o en otra forma establecida la Ley de Procedimiento Administrativo Común.

La información pública se efectuará mediante la inserción de anuncios en el Boletín Oficial de Gipuzkoa y en el diario o diarios de mayor difusión del Territorio Histórico de Gipuzkoa.

Asimismo, se notificará el proyecto a los titulares registrales y a todos aquellos que resulten afectados por la reparcelación.

El Proyecto de Reparcelación estará expuesto en la página Web del Ayuntamiento, dentro del Departamento de Urbanismo.

Contra la presente Resolución no cabe interponer recurso alguno por tratarse de un acto de trámite.

Azpeitia, a 23 de abril de 2024.—La alcaldesa, Nagore Alkorta Elorza. (2986)

EK\CV GAO-I-2024-02986